

DIRU-SARRERAK

Atal honetan azalduko dugu nola irabaziko dugun dirua, hau da, nola ordainduko duten gure bezeroek H-MEren zerbitzua.

Argi utzi nahi dugu gure enpresak bezeroen beharrak asetzea duela helburu nagusizat, dirua irabaztea baino. Hala ere, enpresa mantentzeko beharrezkoa da diru sarrerak edukitzea eta horretarako metodo batzuk erabiliko ditugu:

“CROWDFUNDING” (Enpresa hasteko kapitala lortzeko)

Modu honekin gure helburua enpresaren sorrerarako kapitala lortzea da. Beste erakunde batzuen diruarekin gure enpresa sortuko dugu. Gure enpresak beste helburu batzuk dituzenez gero, enpresa batzuek laguntza ekonomikoa egingo dutela espero dugu.

Diru hori eta gure kapitalarekin hau egingo dugu:

- Dendak eraiki
- Web orrialdea eta App sortu

IRAGARKIEN BIDEZ

Gure web orrialdean eta sakelako App-an beste enpresei iragarkiak ipintzeko aukera emango diegu. Modu honetan, bi enpresek onurak edukiko ditugu:

- H-ME: beste enpresarekin negoziatutako kostua irabaziko dugu.
- Beste enpresa: kostua ordainduko du, baina publicitate edukiko du.

Web orrialdean iragarkiak eskumaldean eta ezkerrean agertuko dira eta app-an ere bai.

UDALETXEETATIK ETA EUSKO JAULARITZATIK

Erakundeak izango dira gure bezero nagusiak. Beraz, gure helburua hurrengo da: udaletxeei gure proiektua saltzea. Horretarako, haiekin bilera bat egingo dugu eta enpresaburuok gure proiektua azalduko diegu. Aurkezpen bat antolatuta izango dugu eta haien erabakia denboratxo bat pasa ondoren emango digute.

Udal batek kontratatu ostean, bere eskola eta institutu publiko guztiek baimena emango digute haien janaria hartzeko. Janari hori hurbilen dagoen dendara eramango dugu.

